

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Navarrabiomed-eko ikertzaileek gizakien sistema immunearen zahartze-prozesua aurkitu dute

*Adinekoen osasuna hobetzeko terapiak garatzen utziko duen lana, University College London-ekin batera egin da eta oihartzun garrantzitsua izan du nazioartean*

Miércoles, 10 de septiembre de 2014

[Navarrabiomed](#) eta University College London-eko (UCL) ikertzaile-talde batek gizakien sistema immunearen zahartze-mekanismoak identifikatu ditu eta baita hura berraktibatze-prozesua ere: Horri esker, infekzioaren aurka eta minbizi-mota batzuen aurka ere erantzun hobea izango duten terapiak garatu ahalko dira, adinekoen artean bereziki.

Ondorio horiek honako hauek zuzendutako ikerketa-taldearen artean izandako lankidetzaren emaitza dira: zahartze-prozesuetan (seneszentzia) aditua den

Arne Akbar (UCL); sistema immuneko zelulen aldaketa genetikoko aditu David Escors (Navarrabiomed), eta doktoretzako ikasle eta lanaren lehen sinatzaile Alessio Lanna (UCL). Ikerketa *Nature Immunology* aldizkari zientifikoan argitaratu da, alor horretako aldizkari garrantzitsu eta ospetsuenetako batean, eta argitalpenean gehien zabaldu eta kontsultatu den artikuluetako bat bihurtu da. Nazioartean oihartzun handiena izan duen Navarrabiomed-en lana da eta garatzeko ahal handieneko ikerketa-ildoetako bat.

### T linfozitoen zahartzea eta infekzioen handitzea

Gizakien gorputzean, gaitz eta minbizien aurka organismoak dituen defentsa-mekanismoetako bat dira "T linfozitoak"; denborak aurrera egin ahala, zahartu egiten dira eta beren babes-gaitasunak galtzen dituzte eta, horren ondorioz, zahartu ahala gaixotasunak nahiz infekzioak areagotzen dira. Aspalditik susmatzen zen metabolismo, zahartze eta immunitatearen artean lotura estua zegoela, nahiz eta orain arte elkarrekintzako mekanismoak zein ziren ez jakin.



David Escors, Navarrabiomed-eko Immunomodulazio Taldeko ikertzailea.

Garatutako ikerketak ondorioztatu du T linfozitoen funtzioa prozesuan parte hartzen duten molekulak blokeatuz indartzen dela (p38 MAPK, AMPK eta TAB1). Horrenbestez, hondatutako sistema immune bat berraktibatu ahalko zen, gaixotasunek aurrera ez egiteko gaitasunarekin edo haien aurka eginez ere. [Navarriomed-eko Immunomodulazio Talde](#)ko ikertzaile David Escors-en arabera, ikerketa horren aplikazio klinikoak esan nahi du, tratamendu eraginkorrak lortu ahalko direla sistema immunea berreskuratuz, horretarako terapia genikoa aplikatuz (tratamendu pertsonalizatuak paziente bakoitzeko) edo inhibitzaile kimikoak erabiliz (botikak).

Gaur egun hanturazko gaitzak eta minbiziak tratatzeko erabilitako p38 MAPK molekula blokeatzen duten botikak badaude. Halaber, linfozitoetan p38aren gainean berariaz jardungo zuten botika berriak sintetizatu ahalko ziren; hala, gure organismoko beste zelula batzuetan zeharkako efekturik ez zen izango. Horrenbestez, biztanleen osasun eta bizi-kalitatea hobetuko zen, gaixotasunak izateko joera duten adineko pertsonena, batez ere.

Une honetan, Navarriomed eta University College London-en arteko lankidetzak aurrera jarraitzen du era horretako terapiak prestatzeko, eta sistema immuneaz gain organismo guztiko zehartzea ere kontrolatzen duten beste zenbait proteinen ikerketan sakontzeko. Lan horri segida emateko, ikerketa-taldeak finantzatzeko beste bide batzuk bilatzen ari dira, epe ertainean proiektio handiena duen lanetako bat, hain zuzen.